| Eskaera onartuen, ez-onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratzea | Uztailaren 14a |
| Matrikula egitea:<br><br>– Ohiko epea<br>I. fasea<br>II. fasea<br>III. fasea<br><br>– Ezohiko epea | • Uztailaren 15etik 19ra bitartean<br>• Uztailaren 21ean<br>• Uztailaren 26 eta 27an<br><br>• Uztailaren 28 eta 29an eta irailaren 1tik urriaren 14ra bitartean |

Bigarrena.– Online nahiz aurrez aurre aurkeztutako onarpen-eskaeren berezitasunak.

Eskaera-inprimaki bakarra beteko da Eskaintza Osoaren Modalitateko Araubide Presentzialaren irakaskuntzetarako: Oinarrizko Lanbide Heziketa, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketa eta espezializazio-kurtsoak.

Inor plazarik gabe gera ez dadin, ikasleei gomendatzen zaie gutxienez hamar plaza eskatzeko eskaera betetzean.

Inprimakiak jarraibide hauen arabera bete behar dira:

– Eskatutako plaza bakoitzeko, datu hauek adieraziko dira: ikastetxea, zikloa eta/edo espezializazio-kurtsoa, maila, hizkuntza-eredua eta txanda.

– Eskatutako lehenengo plazaren ikastetxea erreferentzia-ikastetxea izango da onarpen-prozedura honekin zerikusia duten izapide guztietarako.

– Eskatutako plazak eskatzaileak aukeratutako hurrenkeran agertuko dira.

– Pertsona bakoitzak nahi adina plaza eska ditzake.

Hirugarrena.– Plazen esleipenari buruzko zehaztapenak.

1.– 3. artikuluan aipatzen denaren ildotik, eskaerarik aurkeztu behar ez duten pertsonek, hau da, errepikatzaileek eta 1. mailatik 2. mailara igarotzen direnek, ez dute parte hartuko esleipen-prozeduran.

2.– Eskatzaile bakoitzari plaza bakar bat esleituko zaio.

3.– Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak: esleipena egiteko ezarritako taldeek ondoren adierazten diren letretan duten lehentasun-ordenaren arabera egingo da esleipena. Horrenbestez, ez zaie plazarik esleituko talde bateko eskatzaileei, baldin eta aurreko taldean plazarik esleitu ez zaien eskaerak badaude.

Hona hemen taldeak:

a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. edo 4. mailara arteko ikasketak egin dituzten ikasleak, bide arruntaren bidez edo curriculum aniztasunaren bidez, betiere izen-ematearen urte naturalean 17 urte badituzte eta izen-ematearen unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken maila EAEn egindakoak izan behar dute.

b) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. edo 4. mailara arteko ikasketak egin dituzten ikasleak, bide arruntaren bidez edo curriculum aniztasunaren bidez, betiere izen-ematearen urte naturalean 16 urte badituzte eta izen-ematearen unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken maila EAEn egindakoak izan behar dute.

c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailara arteko ikasketak egin dituzten ikasleak, betiere izen-ematearen urte naturalean 15 urte badituzte eta izen-ematearen unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken maila EAEn egindakoak izan behar dute.

d) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailara arteko ikasketak egin dituzten ikasleak, betiere izen-ematearen urte naturalean 16 urte badituzte eta izen-ematearen unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken maila EAEn egindakoak izan behar dute.

e) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailara arteko ikasketak egin dituzten ikasleak, betiere izen-ematearen urte naturalean 15 urte badituzte eta izen-ematearen unean EAEn eskolatuta badaude. Egun eskolatuta ez badaude, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken maila EAEn egindakoak izan behar dute.

f) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako azken maila erkidego honetan egin ez duten ikasleak, a) apartatutik e) apartatura bitarte ezarritako lehentasun berberarekin.

g) 17 urtetik gorako ikasleak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako hirugarren edo laugarren maila egin dutenak edo, salbuespenez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren maila egin dutenak; betiere, irakasleek proposatu badiete ikasleen familiei edo legezko tutoreei Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo batean sar daitezen.

h) Gainerako eskatzaileak, aurreko taldeetan jasota ez daudenak, baldin eta egiaztatzen badute 17 urte edo gehiago dituztela izen-ematearen urte naturalean.

Talde bakoitzean lehentasun-hurrenkera ezartzeko, aintzat hartuko da historia akademikoaren batez besteko nota onena, I. eranskineko zazpigarren jarraibidean adierazten den moduan kalkulatua. Hala ere, h) taldearen kasuan, adinaren arabera ezarriko da hurrenkera, txikienetik handienera.

4.– Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten eta I. eranskineko 2. puntuko hirugarren jarraibidean xedatutako baldintzak betetzen dituzten ikasleentzako 3 urterako prestakuntza-ibilbidea duten Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloak.

Esleipena egiteko ezarritako taldeek ondoren adierazten diren letretan duten lehentasun-ordenaren arabera egingo da esleipena. Horrenbestez, ez zaie plazarik esleituko talde bateko eskatzaileei, baldin eta aurreko taldean plazarik esleitu ez zaien eskaerak badaude.

a) Baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak: gutxienez DBHko 2. maila egin izana, izen-ematea egiten den urte naturalean 16 urte betetzea eta mugako funtzionamendu intelektualaren ondoriozko Hezkuntza Premia Bereziak (HPB), desgaitasun intelektual arina edo egiaztatutako gaixotasun mental bat izatea.

b) Baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak: gutxienez DBHko 2. maila egin izana, izen-ematea egiten den urte naturalean 15 urte betetzea eta mugako funtzionamendu intelektualaren ondoriozko Hezkuntza Premia Bereziak (HPB), desgaitasun intelektual arina edo egiaztatutako gaixotasun mental bat izatea.

c) Baldintza hauek betetzen dituzten ikasleak: gutxienez DBHko 2. maila egin izana, izen-ematea egiten den urtean 16 urte baino gehiago izatea eta mugako funtzionamendu intelektualaren ondoriozko Hezkuntza Premia Bereziak (HPB), desgaitasun intelektual arina edo egiaztatutako gaixotasun mental bat izatea.

d) Sartzeko baldintzak bete arren, mugako funtzionamendu intelektualetik, desgaitasun intelektual arinetik edo egiaztatutako gaixotasun mental batetatik eratorritakoak ez diren bestelako hezkuntza-laguntzarako premia bereziak dituzten ikasleak.

Talde bakoitzaren barruan berdinketarik izanez gero, ausazko prozedura bat baliatuko da, ikasleak onartzeko prozeduran erabilitako aplikazio informatikoak egina. Aplikazio informatikoak, eskaera grabatzeko unean, ausazko hurrenkera-zenbaki bat esleituko dio eskaerari, 1aren eta 99999aren arteko zenbaki oso bat, alegia. Berdinketak hautsi behar diren kasuetan erabiliko da zenbaki hori, horretarako gainerako irizpide guztiak agortu ondoren, betiere. Zenbaki txikienari emango zaio lehentasuna

5.– 17 urte edo gehiago dituzten eta Lanbide Heziketako ikasketak egiteko titulaziorik egiaztatzen ez duten eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egin ez duten pertsonentzat 3 urterako prestakuntza-ibilbidea duten Oinarrizko Lanbide Heziketako zikoak.

LHko ikasketetan sartzeko titulaziorik egiaztatu ez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egin ez eta inskripzioaren urte naturalean 17 urte edo gehiago dituzten ikasleak. Kasu horretan, adinaren arabera ezarriko da lehentasuna, txikienetik handienera.

6.– Erdi-mailako heziketa-zikloak: esleipena egiteko, lehendabizi kuotak hartuko dira kontuan, eta, kuota bakoitzaren barruan, lehentasunak.

Kuota eta lehentasun hauek ezartzen dira:

a) Plazen % 65 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo irakaskuntza baliokide bateko graduatu-titulua dutela egiaztatzen dutenentzat, honako lehentasun-hurrenkera honi jarraituz:

a.1.– Plazen % 55 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua dutela egiaztatzen dutenentzat, honako lehentasun-hurrenkera honi jarraituz:

a.1.1.– Esleipen-prozedura honetako ikasturtearen aurreko bi ikasturteetako batean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila gainditu duten pertsonak.

a.1.2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gainerako tituludunak.

a.2.– Plazen % 5 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua Helduen Hezkuntzan (HHE) eskuratu dutenentzat.

a.3.– Plazen % 5 ikasketak atzerrian egin eta eskuratutako titulazioa homologatzeke duten ikasleentzat, betiere aurretiaz Baldintzapean izena Emateko Txartela aurkezten badute.

b) Plazen % 20 Oinarrizko Lanbide Heziketako Teknikariaren titulua egiaztatzen dutenentzat, VI. eranskineko I. TAULAN zerrendatutako lehentasun-hurrenkerari jarraituz (erdi-mailako titulu batetik goi-mailako titulu batera sartzeko lehentasunak):

b.1.– 1. lehentasuna.

b.2.– 2. lehentasuna.

b.3.– 3. lehentasuna.

c) Plazen % 15 honako sarbide edo talde hauei esleituko zaizkie, lehentasunen-hurrenkera honetan:

c.1.– Erdi- edo goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probak gainditu dituztenak. Erdi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko proba gainditu dutenek izango dute lehentasuna.

c.2.– Uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriko a) apartatuan ageri diren titulu edo irakaskuntza batzuk gainditu dituztenak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izan ezik).

c.3.– Hasierako lanbide-kualifikazioko programa baten nahitaezko moduluak gainditu dituzten pertsonak.

c.4.– 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba.

c.5.– Beste sarbide batzuk.

Lehentasun berbera duten pertsonen hurrenkera zehazteko, sartzeko erabilitako tituluari dagokion historia akademikoan ageri den batez besteko notari erreparatuko zaio, edo, bestela, sartzeko erabilitako ikasketetan, kurtsoan edo proban lortutako kalifikazioari. Batez beste nota kalkulatzeko, I. eranskineko zazpigarren jarraibidean xedatutakoa hartuko da aintzat.

Aukeretako baten (a, b, c) kuota guztiak betetzen ez badira, plaza hutsak proportzionalki banatuko dira gainerako kuoten artean, lehenengo, a kuota,  gero, b kuota eta, azkenik, c kuota.

7.– Goi-mailako heziketa-zikloak: honako kuota eta lehentasun hauek kontuan hartuko dira esleipena egiteko:

a) Plazen % 60 Batxilergoko titulua egiaztatzen dutenentzat, honela banatuta:

a.1- Plazen % 55 Batxilergoko titulua egiaztatzen dutenentzat, jarraian adierazten den lehentasun-hurrenkerari jarraituz:

a.1.1.– Plaza hauek esleitzean, lehentasuna izango dute ikasi nahi duten tituluari dagokion batxilergo-modalitatea eta tituluan aipatzen den irakasgaia egin dutenek, VI. eranskineko III. taulan ezarritakoari jarraituz (Batxilergoko titulu batetik sartzeko lehentasunak).

a.1.2.– Plaza hauek esleitzean, lehentasuna izango dute ikasi nahi duten tituluari dagokion batxilergo-modalitatea egin dutenek, tituluan aipatzen den irakasgairik gabe, lehenago aipatutako VI. eranskineko III. taulan ezarritakoari jarraituz.

a.1.3.– Beste edozein batxilergo-modalitate.

a.2.– Plazen % 5 ikasketak atzerrian egin eta eskuratutako titulazioa homologatzeke duten ikasleentzat, betiere aurretiaz Baldintzapean izena Emateko Txartela aurkezten badute.

b) Plazen % 20 teknikariaren titulua egiaztatzen dutenentzat, VI. eranskineko II. taulan zerrendatutako lehentasun-hurrenkerari jarraituz (Erdi-mailako titulu batetik goi-mailako titulu batera sartzeko lehentasunak):

b.1.– 1. lehentasuna.

b.2.– 2. lehentasuna.

b.3.– 3. lehentasuna.

c) Plazen % 20, honako hauek egiaztatzen dituztenentzat, zerrendan duten ordenaren araberako lehentasunarekin:

c.1.– Dagokion aukeran sarbide-proba eginez sartzen direnak.

c.2.– 1147/2011 Errege Dekretuko hirugarren xedapen gehigarriaren b) apartatuan ezarritakoaren bidez sartzen direnak, salbu eta LOGSEk arautzen duen batxilergoko titulua dutenak.

c.3.– 25 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko probaren bitartez sartzen direnak.

c.4.– Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariaren beste titulu baten bitartez sartzen direnak.

c.5.– Unibertsitateko titulu baten bitartez sartzen direnak.

c.6.– Beste sarbide batzuk (BBBko titulua, etab.).

Lehentasun berbera duten pertsonen hurrenkera zehazteko, sartzeko erabilitako tituluari dagokion historia akademikoan ageri den batez besteko notari erreparatuko zaio, edo, bestela, sartzeko erabilitako ikasketetan, kurtsoan edo proban lortutako kalifikazioari. Batez beste nota kalkulatzeko, I. eranskineko zazpigarren jarraibidean xedatutakoa hartuko da aintzat.

Aukeretako baten (a, b, c) kuota guztiak betetzen ez badira, plaza hutsak proportzionalki banatuko dira gainerako kuoten artean, lehenengo ,a kuota, gero, b kuota eta, azkenik, c kuota.

8.– Espezializazio-kurtsoak: honako kuota eta lehentasun hauek kontuan hartuko dira esleipena egiteko:

a) Espezializazio-kurtsora sartzeko titulua aurreko bi ikasturteetako batean eta EAEn eskuratu duten ikasleak.

b) Gainerako ikasleak.

Lehentasun berbera duten pertsonen hurrenkera zehazteko, sartzeko erabilitako tituluari dagokion espediente akademikoan ageri den batez besteko notari erreparatuko zaio. Batez beste nota kalkulatzeko, I. eranskineko zazpigarren jarraibidean xedatutakoa hartuko da aintzat.

Laugarrena.– Matrikulazio-prozedura.

1.– Matrikulak presentzialki egin beharko dira ikastetxeetako idazkaritzetan.

2.– Esleipen-prozeduran parte hartu beharrik ez duten ikasleek (errepikatzaile izateagatik edo ikastetxe berean 1. mailatik 2. mailara igotzeagatik) epe honetan egingo dute matrikula: ekainaren 13tik uztailaren 1era, biak barne. Hori egin ezean, ikasten ari diren zikloko plazari uko egiten diotela ulertuko da.

3.– Pertsona bat ezingo da matrikulatu bi ziklotan (salbu eta ordutegiak bateragarriak badira), ez eta ziklo bateko matrikula aldi berean gauzatu ere bi irakaskuntza-modalitate desberdinetan.

4.– Honela egingo da matrikulazio-prozedura:

**– Ohiko epea (uztailaren 15etik 27ra arte)**

a) Epe horretan esleipen-prozeduran parte hartu duten ikasleak baino ezingo dira matrikulatu.

b) Hiru fase egongo dira, eta horietako bakoitzaren barruan beste esleipen-prozedura bat egingo da libre geratu diren eta beren lehenengo aukeran plazarik lortu ez duten pertsonekin.

c) I. eta II. fasean beren lehenengo aukeran plaza lortu dutenak bakarrik matrikulatuko dira. Agindu honen 5. artikuluan ezarritakoa aplikatuz, interesdunak eskatu arren, eskaintzatik kendu diren aukerak aintzat hartu gabe esleituko da lehenengo aukera hori.

d) Fase bakoitzaren hasieran matrikulatzeko eskubidea duten pertsonen zerrenda bat egingo da. Matrikula egiteko epea bukatuta, ez baldin badute eskubide hori erabili, galdu egingo dute, eta ezohiko epean baino ezingo dira matrikulatu.

e) III. fasean, fase horretan matrikulatzeko eskubidea duten pertsonen zerrendan agertzen direnez gain, esleipen-prozeduran parte hartu eta plazarik lortu ez duten ikasleak ere matrikulatuko dira, plaza libreak geratzen badira, betiere.

I. fasea: (uztailaren 15etik 19ra)

II. fasea: (uztailaren 21a)

III. fasea: (uztailaren 26a eta 27a)

**– Ezohiko epea (uztailaren 28a eta 29a eta irailaren 1etik urriaren 14ra).**

Aldi horretan, I. eranskineko hirugarren jarraibidean maila eta ibilbide bakoitzerako ezarritako sarbide-baldintzak betetzen dituzten ikasle guztiak matrikulatu ahal izango dira.

Bosgarrena.– Esleipen- eta matrikulazio-prozesuan sortutako egoerak.

Onartua: Egoera hori agertuko da ikasleak bere lehenengo aukeran plaza lortu duenean.

Behin-behinean onartua, hobetzeko aukerarekin: Egoera hori lehen bi faseetan erakutsiko da, ikaslea plaza horretan onartua izan bada, baina ez bada bere lehen aukera esleigarria. Ikasle horrek ondorengo esleipen-fase batean parte hartuko du berriz ere, eta aukera hobea eman ahal izango zaio.

Beste aukera batean onartua: Egoera hau agertzen da eskatutako aukera guztietatik, ikaslea aukera hobean onartua izan denean.

Ez onartua behin-behinekoa : lehenengo bi faseetan erakutsiko da, ikasleari plazarik esleitu ez zaionean, baina esleitzeko azken fasea geratzen da oraindik.

Ez onartua: azken fasean agertzen da, ikasleak plazarik lortu ez duenean.

Matrikulatua: ikasleak matrikulatzeko eskubidea aldez aurretik baliatu duen faseetan agertzen da.

Beste aukera batean matrikulatuta: aukera onenean matrikulatzeko eskubidea baliatu duen ikasle baten aukeretan agertzen da.

Baztertua, ez matrikulatzeagatik: ikaslea onartu eta matrikulatzeko eskubidea erabili ez zuen aukeretan agertzen da.

Eskaintza ezabatua: eskaintzen ez diren aukeretan agertzen da.

DBHO tituluaren arabera baztertua: ikasleak DBHO titulua duenean egin diren Oinarrizko Mailako LHko aukeretan agertzen da.

III. ERANSKINA

ESKAINTZA PARTZIALAREN MODALITATEKO ARAUBIDE PRESENTZIALAREN LANBIDE HEZIKETA

Lehenengoa.– Egutegia.

| Oharrak:<br><br>Adierazitako hasiera- eta bukaera-datak epearen barruan sartzen dira. Ikastetxe batean egindako izapideak bertako idazkaritza irekita dagoen ordutegian egin beharko dira. | **ESKAINTZA PARTZIALAREN MODALITATEKO ARAUBIDE PRESENTZIALAREN IRAKASKUNTZA** |
|---|---|
| Onarpen-eskaera aurkeztea | Maiatzaren 9tik 27ra.<br>Online: maiatzaren 27ra arte |
| Eskaera aldatzeko edo zuzentzeko aukera | Maiatzaren 27ra arte |
| Dokumentazioa aurkeztea (I. eranskineko bosgarren jarraibidean adierazitakoa) | **Ekainaren 30era arte** (dokumentazioa online eta aurrez aurre ikastetxe batean aurkezten dutenentzat)<br>**Ekainaren 24ra arte (gainerakoak)** |
| Eskaera onartuen, ez-onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzea | Uztailaren 8a |
| Behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazioak aurkeztea | Uztailaren 12ra arte |
| Eskaera onartuen, ez-onartuen eta baztertuen behin betiko zerrendak argitaratzea. | Uztailaren 14a |
| Matrikula egitea: | Uztailaren 15etik 27ra bitartean |

Bigarrena.– Onarpen-eskaerei buruzko zehaztasunak.

Irakaskuntza-modalitate honetan eskaera bakarra egingo da eskatutako plaza guztietarako. Online nahiz aurrez aurre egin daiteke. Plaza horietako bakoitzean, honako hauek adieraziko dira. Ikastetxea, zikloa, modulua eta hizkuntza-eredua.

Hirugarrena.– Plazen esleipenari buruzko zehaztapenak.

Eskainitako konpetentzia-ataletan edo moduluetan, eskaerak gehiago baldin badira eskainitako gehieneko plaza kopurua baino, hautaketa bat egingo da jarraian adierazten diren lehentasun-irizpideei jarraituz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko martxoaren 22ko Aginduaren 8.4 artikuluarekin bat etorriz (agindu horren bidez, Lanbide Heziketako heziketa-zikloak eskaintza partzialeko modalitateko araubide presentzialean ematea arautzen da):

a) Heziketa-zikloan aurretik matrikulatuta egon diren eta, zikloa bukatzeko, egin nahi duten modulua bakarrik falta zaien pertsonak, betiere deialdiak agortu ez badituzte.

b) Langileak, heziketa-eskaintzaren zikloarekin lotutako sektorean lanean dihardutenak edo langabezian daudenak.

c) Ziklo bereko heziketa-moduluren bat edo konpetentzia-atalen bat gainditua duten pertsonak.

d) Eskatzailea zaharragoa izatea.

e) Azken lehentasun-irizpidea aplikatzean, eskainitako plaza baino eskaera gehiago egonez gero, egoera horretan dagoen eskaera bakoitzari ausaz esleitutako ordena-zenbakia hartuko da aintzat berdinketa hausteko. Ordena-zenbaki hori ausaz esleituko du onarpen-prozedurarako erabilitako aplikazio informatikoak. Plazak esleitzeko, zenbakirik txikienak izango du lehentasuna.

Laugarrena.– Matrikulazio-prozedura.

1.– Ikasleak behin betiko matrikulatuta geratuko dira dagokien moduluan, baldin eta taldea osatzeko gutxieneko ikasle kopurua biltzen bada kasuko konpetentzia-atalean edo konpetentzia-atal bati lotuta ez dagoen moduluan, eta hizkuntza-ereduan.

2.– Pertsona bat ezingo da aldi berean matrikulatu modulu batean, irakaskuntza-modalitate desberdinetan.

3.– Esleipen-prozeduran parte hartu duten eta onartuak izan diren pertsonek dagokien epean egin beharko dute matrikula. Hori egin ezean, esleitua duten plazari uko egin diotela ulertuko da.

4.– Matrikulazio-epean, esleipen-prozeduran parte hartu dutenak bakarrik matrikulatu daitezke. Esleipen-prozedura bukatuta egon arren, plaza hutsak dauden bitartean, eskaerak onartuko dira, urriaren 15era arte, egun horretan bukatzen baita matrikula egiteko epea.

5.– Esleitutako plaza bati uko egin nahi izanez gero, idatzi bat egin beharko da, sinadura eta data jarrita, eta plaza esleitu den ikastetxeko idazkaritzan aurkeztu.

IV. ERANSKINA

URRUTIKO ARAUBIDEKO LANBIDE HEZIKETA

Lehenengoa.– Egutegia.

| | |
|---|---|
| Oharrak:<br>Adierazitako hasiera- eta bukaera-datak epearen barruan sartzen dira.Ikastetxe batean egindako izapideak bertako idazkaritza irekita dagoen ordutegian egin beharko dira. | **URRUTIKO IRAKASKUNTZA-ARAUBIDEA**<br>Urrutiko Lanbide Heziketako Zentro Integratuan ematen diren erdi- eta goi-mailako heziketa-zikloen moduluetarako bakarrik |
| **OHIKO EPEA** | |
| Eskaera aurkeztea | Maiatzaren 9tik 27ra bitartean |
| Eskaera aldatzeko edo zuzentzeko aukera | Maiatzaren 27ra arte |
| Dokumentazioa aurkeztea (I. eranskineko bosgarren jarraibidean adierazitakoa) | Ekainaren 15era arte, EAEko administrazioan dokumentaziorik ez duten pertsona guztiak.<br>Ekainaren 30era arte, gainerakoek |
| Eskaera onartuen, ez-onartuen (itxarote-zerrendak) eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzea | Uztailaren 4a |
| Behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazioak aurkeztea | Uztailaren 4tik 6ra bitartean |
| Argitaratzea eskaera onartuen, ez-onartuen (itxaron-zerrendak) eta baztertuen behin betiko zerrendak | Uztailaren 7a |
| Matrikula egitea eta ordaintzea | Uztailaren 7tik 12ra bitartean |
| Itxaron-zerrendetatik eratorritako plazen ondorengo esleipenen behin betiko zerrenda argitaratzea/ Matrikularen ordainketa barne hartzen duten ondorengo esleipenen matrikula formalizatzea | Webgunean iragarriko dira eta gaitutako komunikazio-kanalen bidez jakinaraziko zaie parte-hartzaileei. |
| **EZOHIKO EPEA** | |
| Eskaera aurkeztea | Uztailaren 22tik 29ra bitartean |
| Eskaera aldatzeko edo zuzentzeko aukera | Uztailaren 29ra arte |
| Dokumentazioa aurkeztea (I. eranskineko bosgarren jarraibidean adierazitakoa) | Uztailaren 29ra arte |
| Eskaera onartuen, ez-onartuen (itxarote-zerrendak) eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratzea | Irailaren 7a |
| Behin-behineko zerrenden aurkako erreklamazioak aurkeztea | Irailaren 7tik 9 ra bitartean |
| Argitaratzea eskaera onartuen, ez-onartuen (itxaron-zerrendak) eta baztertuen behin betiko zerrendak | Irailaren 12a |
| Matrikula egitea eta ordaintzea | Irailaren 13tik 16ra bitartean |
| Itxaron-zerrendetatik eratorritako plazen ondorengo esleipenen behin betiko zerrenda argitaratzea/ Matrikularen ordainketa barne hartzen duten ondorengo esleipenen matrikula formalizatzea | Webgunean iragarriko dira eta gaitutako komunikazio-kanalen bidez jakinaraziko zaie parte-hartzaileei. |

Bigarrena.– Onarpen-eskaerei buruzko zehaztasunak.

1.– Eskaera bat aurkeztuko da, norberak interesa duen ikastetxe eta ziklo bakoitzeko. Nahi adina modulu eska daiteke, eta pertsona bati ziklo bateko baino gehiagoko moduluak eslei dakizkioke. Dena den, urrutiko irakaskuntza-araubidean onartutako ikasleek ez dute bi heziketa-ziklotan aldi berean matrikulatzerik izango.

Hala ere, pertsona bat ziklo bereko Lantokiko Prestakuntzan eta, hala badagokio, Proiektuan matrikulatzen bada eta gainerako moduluak gainditu baditu, bigarren ziklo batean matrikulatu ahal izango da, ikasle berrien baldintza beretan.

2.– Eskaerak, bat ziklo bakoitzeko, Urrutiko Lanbide Heziketako Zentro Integratura zuzenduko dira, eta, haietan, adieraziko da, lehentasun-hurrenkeran zerrendatuta, zer modulu egin nahi diren eta ordu presentzialak zer ikastetxetan egingo diren. Halaber, ordu presentzialik gabeko moduluetan, azterketa zer ikastetxetan egin nahi den aukeratu beharko da.

3.– Hezkuntza Sailak gehieneko muga bat ezartzen du ikasleak matrikulatzen diren moduluen iraupenaren guztizko baturarako: ikasle berriak 700 ordurako matrikulatu ahalko dira gehienez, eta berriak ez diren ikasleak 1.000 ordurako. Hori guztia, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2010eko urriaren 11ko Aginduaren 3.2 artikuluak ezarritakoari jarraikiz, zeinaren bidez urrutiko heziketa telematikoaren modalitatean Lanbide Heziketako irakaskuntzen ezarpena eta antolamendua arautzen baitira. Hala ere, ezarritako gehieneko muga horiek gehienez % 5 gainditu ahal izango dituzte dagokion zikloa bukatzeko hala behar duten ikasleek.

4.– Lehenik ikasle hauek onartuko dira: lehendik bertan ikasle izan diren eta, urrutiko modalitatean zer ziklotan matrikulatu nahi duten, ziklo horretako moduluren bat aurreko ikasturtean gainditu dutenak. Lehentasun-hurrenkera ezartzeko, aintzat hartuko da zikloan zehar gainditutako modulu-kopurua, eta, horren ostean, aurreko ikasturtean matrikulatu zireneko moduluetatik gainditutakoen ehunekoa. Beharrezkoa izanez gero, hurrenkera ezartzeko hurrengo irizpidea historia akademikoa izango da. Onartu ez diren pertsonek osatuko dute itxarote-zerrenda.

Hirugarrena.– Plazen esleipenari buruzko zehaztapenak.

1.– Plazak esleitzeko, aintzat hartuko da eskaeran adierazitako lehentasun-hurrenkera, eta, horren barruan, ezarritako hurrenkera.

2.– Erdi-mailako heziketa-zikloak: esleipena egiteko, lehendabizi kuotak hartuko dira kontuan, eta, kuota bakoitzaren barruan, lehentasunak.

a) Plazen % 65 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edo irakaskuntza baliokide bateko graduatu-titulua dutela egiaztatzen dutenentzat, honako lehentasun-hurrenkera honi jarraituz:

a.1.– Plazen % 55 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua dutela egiaztatzen dutenentzat, honako lehentasun-hurrenkera honi jarraituz:

a.1.1.– Esleipen-prozedura honetako ikasturtearen aurreko bi ikasturteetako batean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren maila gainditu duten pertsonak.

a.1.2.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gainerako tituludunak.

a.2.– Plazen % 5 Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua Helduen Hezkuntzan (HHE) eskuratu dutenentzat.

a.3.– Plazen % 5 ikasketak atzerrian egin eta eskuratutako titulazioa homologatzeke duten ikasleentzat, betiere aurretiaz Baldintzapean izena Emateko Txartela aurkezten badute.

b) Plazen % 20 oinarrizko teknikari titulua egiaztatzen dutenei esleituko zaizkie, VI. eranskineko I. taulan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituz (OLHko titulu batetik erdi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko lehentasunak):

b.1.– 1. lehentasuna.

b.2.– 2. lehentasuna.

b.3.– 3. lehentasuna.

c) Plazen % 15 honako sarbide edo talde hauei esleituko zaizkie, lehentasunen-hurrenkera honetan:

c.1.– Erdi- edo goi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko probak gainditu dituztenak. Erdi-mailako heziketa-zikloetara sartzeko proba gainditu dutenek izango dute lehentasuna.

c.2.– Uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriko a) apartatuan ageri diren titulu edo irakaskuntza batzuk gainditu dituztenak (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izan ezik).

c.3.– Hasierako lanbide-kualifikazioko programa baten nahitaezko moduluak gainditu dituzten pertsonak.

c.4.– 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba.

c.5.– Beste sarbide batzuk.

Lehentasun berbera duten pertsonen hurrenkera zehazteko, sartzeko erabilitako tituluari dagokion historia akademikoan ageri den batez besteko notari erreparatuko zaio, edo, bestela, sartzeko erabilitako ikasketetan, kurtsoan edo proban lortutako kalifikazioari. Batez beste nota kalkulatzeko, I. eranskineko zazpigarren jarraibidean xedatutakoa hartuko da aintzat.

Aukeretako baten (a, b, c) kuota guztiak betetzen ez badira, plaza hutsak proportzionalki banatuko dira gainerako kuoten artean.

3.– Goi-mailako heziketa-zikloak: honako kuota eta lehentasun hauek kontuan hartuko dira esleipena egiteko:

a) Plazen % 60 Batxilergoko titulua egiaztatzen dutenentzat, honela banatuta:

a.1- Plazen % 55 Batxilergoko titulua egiaztatzen dutenentzat, jarraian adierazten den lehentasun-hurrenkerari jarraituz:

a.1.1.– Plaza hauek esleitzean, lehentasuna izango dute ikasi nahi duten tituluari dagokion batxilergo-modalitatea eta tituluan aipatzen den irakasgaia egin dutenek, VI. eranskineko III. taulan ezarritakoari jarraituz (Batxilergoko titulu batetik sartzeko lehentasunak).

a.1.2.– Plaza hauek esleitzean, lehentasuna izango dute ikasi nahi duten tituluari dagokion batxilergo-modalitatea egin dutenek, tituluan aipatzen den irakasgairik gabe, lehenago aipatutako VI. eranskineko III. taulan ezarritakoari jarraituz.

a.1.3.– Beste edozein batxilergo-modalitate.

a.2.– Plazen % 5 ikasketak atzerrian egin eta eskuratutako titulazioa homologatzeke duten ikasleentzat, betiere aurretiaz Baldintzapean izena Emateko Txartela aurkezten badute.

b) Plazen % 20, Teknikariaren titulua egiaztatzen dutenentzat, VI. eranskineko II. taulan zerrendatutako lehentasun-hurrenkerari jarraituz (erdi-mailako titulu batetik go-mailako titulu batera sartzeko lehentasunak):

b.1.– 1. lehentasuna.

b.2.– 2. lehentasuna.

b.3.– 3. lehentasuna.

c) Plazen % 20, honako hauek egiaztatzen dituztenentzat, zerrendan duten ordenaren araberako lehentasunarekin:

c.1.– Dagokion aukeran sarbide-proba eginez sartzen direnak.

c.2.– 1147/2011 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriaren b) apartatuan ezarritakoaren bidez sartzen direnak, salbu eta LOGSEk arautzen duen batxilergoko titulua dutenak.

c.3.– 25 urtetik gorakoak unibertsitatean sartzeko probaren bitartez sartzen direnak.

c.4.– Lanbide Heziketako goi-mailako teknikariaren beste titulu baten bitartez sartzen direnak.

c.5.– Unibertsitateko titulu baten bitartez sartzen direnak.

c.6.– Beste sarbide batzuk (BBBko titulua, etab.).

Lehentasun berbera duten pertsonen hurrenkera zehazteko, sartzeko erabilitako tituluari dagokion historia akademikoan ageri den batez besteko notari erreparatuko zaio, edo, bestela, sartzeko erabilitako ikasketetan, kurtsoan edo proban lortutako kalifikazioari. Batez beste nota kalkulatzeko, I. eranskineko zazpigarren jarraibidean xedatutakoa hartuko da aintzat.

Aukeretako baten (a, b, c) kuota guztiak betetzen ez badira, plaza hutsak proportzionalki banatuko dira gainerako kuoten artean , lehenengo a kuota, gero b,  eta azkenik c.

Laugarrena.– Matrikulazio-prozedura.

1.– Urrutiko araubide telematikoko heziketa-zikloen irakaskuntzen kasuan, onartutako pertsonen behin betiko zerrendetan ageri diren eskatzaileek egutegian zehazten den epean egin beharko dute matrikula. Horretarako, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak 2013ko uztailaren 10ean emandako aginduan ikasketen modalitate horretarako ezarritako prezio publikoa ordaindu beharko dute. Matrikula eraginkorra izango da soilik dagokion prezio publikoa ordaintzen bada.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu betegina onartzeko irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuak aipatzen dituen modalitateen bitartez ordaindu ahal izango da. Kreditu-erakunde kolaboratzaileek lagunduko dute horretan.

Ordainketa-gutuna izena emateko agirian datorren web-helbidean (URL) eskuratu ahal izango da, agiri horretan agertzen diren sarbide-gakoak erabiliz.

Ordainketa ezarritako epean egin ezean, esleitutako plazen gaineko eskubide orori uko egiten zaiola ulertuko da, ez baita plaza horien ordainketa egin.

3.– Fase honetako lanpostu huts guztiak betetzen ez badira eta oraindik hautagaiak badaude itxarote-zerrendan, plaza hutsak esleituko dira, zerrenda horretan betetzen den postuaren arabera, plazak agortu arte edo, hala badagokio, eskainitako zikloetako modulu bakoitzeko itxarote-zerrenda agortu arte. Prozedura horretan onartutako pertsonen zerrendak eta matrikulatzeko epeak ikasgunean argitaratuko dira, eta Urrutiko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuko idazkaritzan kontsultatu ahal izango dira, interesduna identifikatu ondoren. Pertsona horiek egutegian adierazitako epean formalizatu beharko dute matrikula, prezio publikoa ordaindu ondoren.

Hala egin ezean, esleitutako plazetako edozein eskubideri uko egiten diotela ulertuko da, baldin eta plaza horien matrikula baieztatu ez bada.

4.– Prozedura horren ondoren plaza libreak geratzen badira, ezohiko matrikula-epean beteko dira.

Bosgarrena.– Urrutiko irakaskuntza-araubidearen ezohiko epea.

1.– Zuzeneko sarbidearen bitartez plaza lortzeko eskaera ekainean aurkeztuta, eskatzen ziren baldintzak une horretan bete ezin zituztela-eta, beharrezko ziurtagiri akademikoak aurkeztu ezin izan zituztenek ezohiko epea izango dute hartarako, eskatzen den titulazioa lortzen dutenean. Horretarako, Urrutiko Lanbide Heziketako Zentro Integratuan aurkeztu beharko dute egiaztagiri akademikoa uztailaren 29 baino lehen.

2.– Behin esleipena egiteko ohiko epea bukatuta, eskaerak eta dokumentazioa aurkezteko beste epe bat irekiko da, moduluetan dauden plaza hutsak betetzeko.

Interesdunek, epe horretan parte hartzeko, eskaera aurkeztu beharko dute ohiko eperako ezarritako prozedurari jarraituz, eta dagokion heziketa-zikloan matrikulatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duen dokumentazioa bidali beharko dute uztailaren 29a baino lehen, ohiko eperako ezarritako bideak erabiliz.

Eskatzailea, dokumentazio hori ezarritako epean bidali ezean, prozedurako fase honetatik kanpo geratuko da automatikoki.

3.– Jasotako eskaerak barematu eta gero, adierazitako egunean argitaratuko dira Ikasgunean onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko eta behin betiko zerrendak.

4.– Onartuek ezarritako epean egin beharko dute matrikula, eta prezio publikoa ordaintzeko azken eguna egutegian adierazitakoa izango da.

Ordainketa ezarritako epean egin ezean, esleitutako plazen gaineko eskubide orori uko egiten diotela ulertuko da, ez baitute plaza horien ordainketa egin.

5.– Fase honetan plaza huts guztiak betetzen ez badira eta oraindik hautagaiak badaude itxarote-zerrendan, plaza horiek esleituko zaizkie beste prozedura batzuetan, zerrendan duten postuaren arabera, plaza guztiak edo itxarote-zerrenda agortu arte. Prozedura horretan onartutako pertsonen zerrendak eta matrikulatzeko epeak Euskal Autonomia Erkidegoko Urrutiko Lanbide Heziketako Zentro Integratuaren idazkaritzan eta Ikasgunean izango dituzte eskuragarri hautagaiek.

Plaza hutsak dauden bitartean, eskaerak onartuko dira, urriaren 14era arte, egun horretan bukatzen baita matrikula egiteko epea.

V. ERANSKINA

IKASTETXEEK HEZKUNTZA ARLOKO ESKUMENA DUEN SAILAREN APLIKAZIO INFORMATIKOA ERABILTZEKO JARRAIBIDEAK (ARAUBIDE PRESENTZIALA –OSOA ETA PARTZIALA– ETA URRUTIKOA)

Lehenengoa.– Prozedura informatikoaren ezaugarriak.

1.– Derrigortasuna.

a) Ikasleak onartzeko, prozedura informatiko espezifiko bat erabiliko da, hezkuntza-arloko eskumena duen sailak horretarako diseinatua; eskabideen hurrenkera ezartzeko eta plazak esleitzeko, ordea, I. eranskinean eta irakaskuntza-modalitateari dagokion eranskinean adierazitakoari jarraituko zaio, ikastetxeak ezarritako eran.

b) Aplikazio hori erabili beharko dute ikastetxe publiko guztiek eta itundutako ikastetxe pribatu guztiek, jarraibide hauetan ezarritako baldintzetan.

c) Itundu gabeko ikastetxe pribatuek, hezkuntza-itunik gabe jarduten badute irakaskuntzan, nahitaez erabili beharko dute aplikazio informatikoa, V. eranskineko zazpigarren jarraibidean ezarritako eran.

2.– Datu-iturri ofizial bakarra.

Ikastetxeek informatika-aplikazio horretan sartutako datuak izango dira hezkuntza-sistemaren lanbide-heziketako zikloetako ikasleei buruzko informazio-iturri ofizial bakarra. Aplikazio horretan jasotako datuak soilik erabiliko dira ikasleei buruzko agiri edota ziurtagiri ofizialak egiteko –hala nola aktak, titulu ofizialak eta antzeko dokumentuak–.

Bigarrena.– Ikastetxe bakoitzaren plaza-eskaintzaren definizioa.

1.– Eskaintzen diren heziketa-zikloei buruzko datuak sartzea.

Hezkuntza Administrazioak aplikazio informatikoan sartuko ditu ikastetxe publiko eta itunpeko pribatuek egiten duten eskaintzari buruzko datuak, 2022-2023 ikasturtean Oinarrizko, Erdi-mailako, Goi-mailako Lanbide Heziketan eta espezializazio kurtsoetan eskaintzen diren ziklo guztietakoak, honako hauek adierazita: ikastetxea, zikloa eta, hala badagokio, modulua, talde-kopurua, txanda eta hizkuntza-eredua.

2. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Ikastetxe publikoren edo itunpeko ikastetxe pribaturen batek aplikazio informatikoan akatsen bat aurkitzen badu ikastetxeek eskaintzen duten zikloei buruzko datuetan, bi eguneko epea izango dute, eskaerak aurkezteko epea hasi baino lehen, akatsaren berri ahalik eta lasterren emateko Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzari. Erreklamazioa egiazkoa dela egiaztatu ondoren, ordezkaritzak akatsa zuzenduko du, eta horren berri jakinaraziko dio ikastetxeari.

3.– Eskainitako plazei buruzko datuak sartzea.

a) Eskaintza Osoaren Modalitateko Araubide Presentzialaren irakaskuntzan, honela banatuko dira eskaintzako plazak ziklo eta hizkuntza-ereduen artean:

• Gehieneko talde kopuruak ezarriko du ikastetxeek ziklo bakoitzean gehienez zenbat plaza izango duten.

• Ikastetxe publiko edo itunpeko pribatu bakoitzaren ardura izango da ezartzea eta aplikazio informatikoan sartzea nola banatzen dituzten ziklo bakoitzeko plaza-kopurua talde eta hizkuntza-ereduen artean; horretarako, kontuan hartu beharko dute zenbat plaza dagokien ikasle errepikatzaileei eta, aurreikusitakoaren arabera, maila zenbatek errepikatuko duten ikastetxean bertan eta ziklo, txanda eta hizkuntza-eredu berean.

b) Eskaintza Partzialaren Modalitateko Araubide Presentzialaren eta Urrutiko Araubidearen irakaskuntzetan, sail eskudunak planifikatuko du zenbat plaza eskainiko diren.

Hirugarrena.– Onarpen-eskaerak.

1.– Eskaerak sartzea.

a) Eskabidea online egiten duten eskatzaileek edo, hala badagokio, eskaeren hartzaile diren ikastetxeek honako datu hauek sartu beharko dituzte, ezinbestez, aplikazio informatikoan:

– Eskatzailearen datu pertsonalak.

– Eskatutako plaza kopurua, eskatutako lehentasun-hurrenkeraren arabera zerrendatuta.

– Helbide elektronikoa.

b) Izen-ematea egiten den unean egiaztatu egingo da interesdunak baduela erabiltzailea eta pasahitza Ikasgunean; izan ere, beharrezkoak izango dira eskaeraren jarraipena egiteko. Halakorik ez badauka, une horretan bertan emango zaizkio.

2.– Eskaerak grabatzeko epemuga.

a) Ikastetxeek fase honetako datuak sartuta izan behar dituzte maiatzaren 27ko 24:00ak baino lehen, irakaskuntza presentzialean eta urrutiko irakaskuntza-araubidean. Hala ere, irakaskuntza presentziala eskatzen dutenek aurkeztu beharreko dokumentuak uztailaren 1eko 14:00ak arte sartu ahal izango dira. Hortik aurrera, ezingo da beste aldaketarik egin.

Laugarrena.– Eskaintza egokitzea.

1.– Eskaintza eskarira egokitzea.

a) Aplikazio informatikoak aukera emango die ikastetxeei une oro jakiteko zenbat plaza eskatu diren maila, ziklo, eta, hala dagokio, modulu, txanda eta hizkuntza-eredu guztietan, eta aukera emango die, halaber, eskari horren osaera eta banaketa eskaintzarekin alderatzeko, bigarren jarraibidearen arabera, betiere.

b) Eskaintza zikloen eta hizkuntza-ereduen artean banatzeari eta horietako bakoitzeko plazei buruzko datu guztiak aplikazio informatikoan sartu beharko dira ekainaren 1a baino lehen, eranskin honetako bigarren jarraibideko 1. puntuan ezartzen den bezala.

c) Momentu horretatik aurrera, behin ikastetxeko eskaintzaren eta eskariaren datuetan aldaketak egiteko epea bukatu ostean, maila bakoitzerako aurkeztutako eskabide guztiak onar daitezkeen edo ez zehaztuko du aplikazio informatikoak. Onartu ahal badira, ez da beharrezkoa izango eskaerak ezarritako lehentasunen eta hurrenkeraren arabera antolatzea.

Bosgarrena.– Zerrendak eta erreklamazioak.

1.– Onartutakoen eta ez-onartutakoen behin-behineko zerrendak.

Aplikazio informatikoak ikastetxeen esku jarriko ditu onartutakoen eta ez-onartutakoen behin-behineko zerrendak. Zerrenda horietan, plaza esleituko zaie eskatzaileei, ikastetxe eta ziklo batean, eta, hala badagokio, modulu, eredu eta txanda batean, araudi honetan ezarritako irizpideei jarraituz.

Esleipena egin eta gero, interesdunek Ikasgunean https://ikasgunea.euskadi.eus eta eskaera egin duten ikastetxeko idazkaritzan kontsultatu ahal izango dituzte onartutakoen eta ez-onartutakoen zerrendak. Bertan, lehentasunari, hurrenkerari eta berdinketa hausteko zenbakiari buruzko datuak egongo dira jasota.

2.– Erreklamazioak aurkeztea.

Pertsona batek erreklamazioa aurkezten badu, ikastetxeak pertsona horri dagokion erreklamazio-pantailan sartuko da, eta, han, jasoko du baremoko zer atalen aurka aurkezten den erreklamazioa, zer arrazoi ematen den eta zer dokumentu aurkezten duen erreklamaziogileak. Ondoren, aurkeztutako erreklamazioaren kopia bat inprimatu, zigilatu eta erreklamaziogileari emango dio.

3.– Erreklamazioak ebaztea.

a) Ikastetxeak, erreklamazioak aztertu ondoren, egin beharreko zuzenketak sartu beharko ditu aplikazio informatikoan; uztailaren 12ra arte egongo da epea, Eskaintza Osoaren eta Partzialaren Araubide Presentzialeko irakaskuntzan, eta uztailaren 6ra arte, Urrutiko Irakaskuntza Araubidean.

Horretarako, aplikazio informatikoan erreklamazioak ebazteko pantailan sartu beharko du, zehazki erreklamaziogileari dagokion hartan. Ikastetxeak erreklamazioa baztertu edo osorik edo partez onartu beharko du, aplikazio informatikoan dagozkion laukiak markatuz eta, hala behar denean, erreklamazioan onartutako datuak aldatuz.

b) Erreklamazio bat osorik edo neurri batean onartzen bada, aldatu beharreko datuak aldatu egingo dira behin betiko zerrendetan.

4.– Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendak.

Aplikazio informatikoak onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrendak emango dizkio ikastetxeari. Zerrenda horietan, plaza esleituko zaie eskatzaileei, ikastetxe eta ziklo batean, eta, hala badagokio, modulu, eredu eta txanda batean, araudi honetan ezarritako irizpideei jarraituz.

Interesdunek Ikasgunean https://ikasgunea.euskadi.eus eta eskaera egin duten ikastetxeko idazkaritzan kontsultatu ahal izango dituzte onartutakoen eta ez-onartutakoen zerrenda. Bertan, lehentasunari, hurrenkerari eta berdinketa hausteko zenbakiari buruzko datuak egongo dira jasota.

Seigarrena.– Matrikula egitea.

Lanbide Heziketarako dagoen aplikazio informatikoaren bitartez egin beharko dira matrikula guztiak. Matrikulatutako pertsonaren datu guztiak eta matrikularen berrespena sartu beharko dira aplikazio horretan.

Zazpigarrena.– Estatistika-datuak baliozkotzea.

Ikastetxe guztiek egin beharko dute.

A) Ohiko epean:

Ikastetxeek ikasleen eskaerei eta matrikulazioari buruzko datuak grabatu beharko dituzte, honako egutegia errespetatuz:

a) Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetan eta erdi- eta goi-mailako zikloetan eta espezializazio kurtsoen esleipenerako aurkeztutako eskaera guztien datuak grabatzea: ekainaren 1era arte, egun hori barne.

b) Ohiko matrikula-epean edozein mailatan matrikulatutako pertsona guztien matrikularen berrespena grabatzea (ikasle berriak, maila errepikatzen duten ikasleak eta maila batetik bestera igarotzen diren ikasleak barne): uztailaren 28ra arte, egun hori barne.

B) Ezohiko epean:

Halaber, irailean, ikastetxeek matrikularen behin betiko estatistika-datuak baliozkotu beharko dituzte, aplikazio informatikoan, Hezkuntza Sailaren estatistika-unitateek adierazten dieten epean.

